

Eduardo Zubiaurre Arrasateko Campusean.

2010/04/23

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan Industria Antolakuntzako Ingeniaritzan dauden ikasleek, ADEGIko presidentea den Eduardo Zubiaurre jaunak emandako hizketaldiaz gozatzeko aukera izan zuten joan zen ostegunean, Arrasateko Campusean.

Hitzaldia honako gai hauekara bideratu zen: aldaketa garaiak enpresetan, enpresen egungo egoera, erronkak lehiakortasunerako bidean, ekintzailetasun eta enpresari senaren beharra, gaur egungo lan mekanismoak egoera honetatik atera ahal izateko.

Benetan interesgarria izan zen Saioa, galdera asko egin ziren eta jakinmin ikaragarria erakutsi zuten ikasleek.

